# AUZOA

**TXANGOA EGINGO DUGU AUZOAN BARRENA, BEGIRADA AGENDA 2030EKO GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUETAN JARRITA. BEGIKON, IRAKURKETAREN BITARTEZ HARTUKO DUGU PARTE MUNDU-MAILAKO ERRONKA HORRETAN, ETA HORRETARAKO, ZENBAIT LIBURU PROPOSATU NAHI DIZKIZUGU. NAHI AL DUZU GUREKIN BAT EGIN?**

**Zaindu liburuak. Kulturak balio ikaragarria du.**



## 1 HERRIGINTZA

**Inari, Laponiako lore +10**

Inari Laponiako leku lasai eta baketsuan bizi da, amona, guraso eta neba-arrebekin batera, naturarekin bat eginik. Halako adibideak, iraganekoak barik, etorkizunekoak ditugu, horko oreka eredugarria baita bihar-etziko herri eta auzoetarako.



**Babestu auzoko dendak, baita liburu-dendak ere. Gogoan izan aldaketa liburuetan hazten dela.**

**Auzoan barrena, oinez, bizikletaz edo garraio publikoan.**



## 2 MUGIKORTASUNA

**Xamaren herri magikoa +8**

Xamaren herrian bizikleta da garraiobide nagusia. Lagunak aurrera eta atzera ibiltzen dira bizikletaz, bazterrak kutsatu gabe eta euren osasunaren mesedetan.

## 3 SALEROSKETA

**Jira, Peli eta hirurok +8**

Liburu honetan auzoko denda bateko istorio harrigarria kontatzen zaigu, Gilen eta haren lagunak protagonista direla. Abenturaz betetako orrialdeotan, argi geratuko da auzoetako denden garrantzia.



## 4 HONDAKINEN KUDEAKETA

**Hazi Txiki +4**

Liburu eder hau naturan gertatzen den mirariaz mintzo zaigu, bizitzaren zikloaz, alegia. Irudi bizien bitartez, animalien hondakinetatik bizia nola sortzen den ikasiko dugu.



**Erabili ontzi berrerabilgarriak eta saiatu paketatutako produkturik ez erosten.**



## 5 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**Eurigilea +4**

Liburu hau uraren alegoria zoragarria da. Pertsonaia-txo berezi batek uraren garrantziaz ohartaraziko gaitu, bai eta urrezko ondasun hori alferrik ez xahutzera bultzatuko ere.

**Hobe dutxa; bainatzeko ur asko behar da.**



**Eman erabiltzen ez dituzun gauzak. GKEek bizitza berria aurkituko diete.**

## 6 HERRITARREN PARTE HARTZEA

**Erraldoiek ez dute gizakirik jaten +10**

Garbiñek, Mariñek eta Sansonkulesek enpatia handia erakusten dute besteekiko, eta edozer egiteko gai dira arazotan daudenei laguntzeko. Alde horretatik, eredu bikaina dira auzo, herri eta gizarte hobea lortzeko.

### ERAKUTSI MUNDUARI EKOIRAKURLE APARTA ZARELA!

**Mundu-mailako helburuak lortzeko neurri hauek edo beste batzuk abian jartzen badituzu, kontaiguzu sare sozialetan. Erabili #EKOIRAKURLEAKGARA traola.**

**begiko.com**